XXXXX

EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

@@@1768 /2011 EBAZPENA, azaroaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Ebazpen honen bidez onartzen dira zerbitzuetako langileen kategorian Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak. Aipatu kategoria mendeko langileen lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetzako-Euskal Osasun Zerbitzuko erakundeetan izango dira.@@@

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren bidez onartu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko beharrezkoa da kategoria bakoitzeko destinoak arautuko dituzten oinarri espezifikoak argitaratzea.

Horregatik, bat etorriz Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Osasun zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak eta Osakidetza Ente Publikoko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoarekin eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoarekin,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Oinarri hauen xede diren hautaketa-probak deitzea.

Bigarrena.- Zerbitzuetako langilearen kategorian lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea, I. Eranskinean agertzen direnak. Aipatu kategoria Mendeko langileen lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetzako-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun-zerbitzuetako erakundeetan izango dira.

Hirugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean eskainitako destinoen zerrenda onartzea.

Laugarrena.– Merituen baremoa onartzea, ebazpen honen III. eranskinean dagoena.

Bosgarrena.– Dagokion gai-zerrenda onartzea, ebazpen honen IV. eranskinean dagoena.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari hilabeteko epearen barruan, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezartzen baitute lege eta dekretu hauek: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoak; Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak.

Vitoria-Gasteizen, azaroaren 16an.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIAN PEREZ GIL.

Osakidetza
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR GENERAL

# I. ERANSKINA

## ZERBITZUETAKO LANGILEEN KATEGORIAN OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAN LOTURA ESTATUTARIO FINKOA LORTZEKO HAUTATZE PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK. AIPATU KATEGORIA MENDEKO LANGILEEN LANBIDE TALDEKOA DA ETA DESTINOAK OSAKIDETZAKO-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ERAKUNDEETAN IZANGO DIRA.

1.- DEIALDI HONETAN ESKAINTZEN DIREN DESTINOAK.

1.1.- Deialdi honen xede izango dira zerbitzuetako langileen kategoriako destinoak mendeko langileen lanbide taldekoak eta destinoak II. eranskinean agertzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko osasun-zerbitzuetako erakundetakoak izango dira. Destino horien kopurua eta ezaugarriak aldatu ahal dira 2011rako deitzen den lekualdatze-lehiaketa erabaki ahala.

1.2.- Deitutako destinoen %5 pertsonal ezinduak betetzeko gordeko da. Oinarri orokorren arabera eskaini daitezkeen destinoak behin betiko zehazten direnean erabakiko da zenbatekoa den kopuru hori.

2.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

Izangaiek ebazpen honetan arautzen den deialdian parte har dezaten, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean, oinarri orokorretan eskatzen diren baldintzez gain, beste hauek ere bete beharko dituzte, oinarri orokorretan jasotzen diren salbuespenak izan ezik, eta, kasua bada destinoa esleitzen dela, destinoaz jabetu arte mantendu behar dituzte:

a) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako egindako ikasketa urteen ziurtagiria (DBH edo baliokidea) izatea edo izateko moduan egotea, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuko I. Eranskinean zehaztutakoa betez.

b) Edozein kasutan ere, lortu nahi den lanpostuaren baldintzak bete behar dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen 186/2005 Dekretuak, uztailaren 19koak, ezarritakoaren arabera eta indarrean dagoen araudiak ezarritako beste edozeinen arabera.

c) Inskripzio-eskubide hauek ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epe barruan, eskainitako destinoen titulazio-taldearen arabera:

E taldea: 10 euro

3.- OPOSIZIO LEHIAKETAREN NONDIK NORAKOA.

3.1.– Oposizioaldia.

Epaimahaiari dagokio probaren edukia eta iraupena zehaztea. Galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehienezko denboraren barruan, eta galderak IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira.

Era berean, aipatu eranskinean bibliografia ere sartuko da proba prestatzeko.

3.2.- Oinarri orokorretako 14. atalean aurreikusitako puntuazio-ordenaren araberako izangaien zerrendaren ondoren, I. eranskinean agertzen diren proposatutako izangaiek, 14.2 oinarrian zehaztutako dokumentazioaz gain, beste hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute:

- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako egindako ikasketa urteen ziurtagiriaren (DBH edo baliokidea) fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuko I. Eranskinean zehaztutakoa betez.

3.3.- Lehiaketaldia.

Egiaztatutako merituak III. Eranskineko merituen baremoaren arabera balioztatuko dira, oinarri orokorretan ezarritako irizpideen arabera.

# II. ERANSKINA

zerbitzuetako langileen KATEGORIAKO DESTINOEN ZERRENDA

Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, 63 destino deitzen dira.

Deitutako destino-kopurua alda liteke, 2011n deituko den lekualdaketa-lehiaketaren ondorioz.

2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren osasun-zerbitzu erakundeetako destinoak hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratzean zehaztuko dira.

# III. ERANSKINA

## MENDEKO LANGILEEN LANBIDE TALDEKO ZERBITZUETAKO LANGILEEN KATEGORIAKO MERITUEN BAREMOA

1) LAN-ESPERIENTZIA: gehienez, 80 puntu.

Eskabideak aurkezteko azken egunera arte izangaiek aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Guztizko denbora zenbatzeko orduan, lan egindako egun naturalak hartuko dira kontuan, eta ez dira zenbatuko hilabetera heltzen ez diren gainerako egunak. Hilabetea osatzeko, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da.

1.- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Zerbitzuetako, Gizarte Segurantzako edo komunitate autonomoetako Osasun Zerbitzuetako edo edozein herri administraziotako erakundeetan zerbitzuetako langile gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko, Europar Batasuneko kide diren gainerako estatuetako sare publikoko osasun zerbitzuetan emandako zerbitzuak barne, 0,30 puntu.

Barne-sustapeneko txandan lehiatzen direnei, honela zenbatuko zaizkie eskainitako aurretiko zerbitzuak:

E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,22 puntu hilabete bakoitzeko. Lehiatzen den lanpostu berean eskainitako zerbitzuak direnean: 0,30 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu eginkizunetan edo goragoko kategoriako funtzioetan eskainitako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, zerbitzu berezietako egoeran eskainitako zerbitzuak jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira.

2) EUSKARA.

- 1HE: 9 puntu

IV. ERANSKINA

ZERBITZUETAKO LANGILEEN KATEGORIAKO GAI-ZERRENDA.

1.- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zerbitzu Erakundeak: Legezko onarpena. Ahalmenak. Gaur egungo osasun-zerbitzuetako erakundeen zerrenda. Osasun erakundeetako zuzendaritza-, kudeaketa- eta partaidetza-organoak.

2.- Osakidetza–Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa. Lanaldia. Atsedenaldia eta oporrak. Lizentziak eta baimenak..

3.- Paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak: Eskubide orokorrak. Haurraren eskubide espezifikoak. Emakumearen eskubide espezifikoak. Pazienteen betebeharrak.

4.- Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuaren suteak prebenitzeari buruzko Eskuliburu informatiboa: sutearen izaera, nola eragiten den, itzalgailu eragile ohikoenak, suteak prebenitzeko gomendioak, emergentzia-egoerak. Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuaren Eskuliburu informatiboa: Osakidetzako langileentzako arrisku orokorrak: prebentzio-zerbitzua, definizioak, osasun arloko arrisku orokorrak, arrisku ergonomikoak, arrisku psikosozialak. Prebentzioko karpeta gorria: lan-istripuak/intzidenteak, egin beharreko jarduerak: langileak eta hurbileko arduradunak, eraso bati nola aurre egin.

5.- Sukaldea. Lokalaren departamenduak: departamendu komunak, Departamendu girotuak. Su-mota ezberdinak: gasa, propanoa, hiriko gasa, ikatz-minerala, gasolioa, elektrikoa. Beste bero-sorgailu batzuk: salamandra, frijigailuak, parrilla eta plantxa parrilla, prusiarra, burruntzia, marmitak eta presio-eltzea, mahai beroa, zartagin eraiskarriak, ur-bainua.

6.- Hotz-sorgailuak: elikagai galkorren kontserbazioan erabiltzen diren elementuak. Balantza eta laneko mahaiak. Marmita taparekin. Zartagin zuloduna. Edukiera-neurriak. Puregailua. Iragazki txinatarra. Morteroa. Eskuzko arraspagaiua. Eltzea. Paella-ontzia. Lurrezko kazola. Ganibet-motak: kolpezkoak eta erdi-kolpezkoak, tipula-ganibeta, hezurrak kentzekoa, errekitarako labana, puntila, urdaiazpiko-ganibeta, aihotza, zuritzekoa.

7.- Higienea osasun-zentroetan. Garbitasunaren garrantzia ospitalean. Garbitasuna eta desinfekzioa. Ospitaleko garbitasunean kontuan izan beharreko arau orokorrak. Ospitale bateko guneen sailkapena: arrisku gutxiko gune orokorrak, gune semikritikoak edo arrisku ertainekoak, arrisku handiko gune kritikoak.

8.- Ospitale bateko gune bakoitza garbitzeko tresnak, makinaria eta gutxieneko produktuak. Detergenteak. Lixibak. Gela-garbiketa egoera hauen arabera: okupaturik, okupatu gabe, libre eta isolaturik. Kirofano-garbiketa. Gune ez esterilen garbiketa.

9.- Arroparen tratamendua. Gune zikinetan. Garbiketa-teknikak (tenperaturak, denborak) eta orbanak kentzeko oinarrizko ideiak. Gune garbietan (zentrifugatua, lehorketa, arrabolez prentsatzea). Jantzitegia (biltegia eta banaketa). Uraren kalitatea. Uraren tratamendua. Ospitaleko arropak lehortzea.

10.- Aglutinatzaile-mota ezberdinak: karea, zementua, morteroak eta igeltsua. Ormigoi armatua. Eroanbideak: sare pribatua eta herri-sarea. Arrail-motak: arruntak eta angeluan.

11.- Lehorgailuak, lisatzaileak edo arrabolak.

12.- Kronikotasunaren erronka Euskadin: proiektu estrategikoak

BIBLIOGRAFIA

- 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituena: 13 eta 14 artikuluak eta II. Eranskina (EHAA, 219 zb., 1997ko azaroaren 14koa). Osasun-zerbitzuetako erakundeen zerrenda: izendapen horiek aldatzen dituzten zenbait erabaki, azkena 2011ko urriaren 3koa delarik.

- Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren III. eta IV. Titulua (EHAA, 250 zb., 2007ko abenduaren 31koa, eta 2008ko ekainaren 16ko 113. zb.).

– 175/1989 Dekretua, uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta onartzen duena: 1, 2, 3 eta 4. artikuluak.

- Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuaren suteak prebenitzeari buruzko Eskuliburu informatiboa: sutearen izaera, nola eragiten den, itzalgailu eragile ohikoenak, suteak prebenitzeko gomendioak, emergentzia-egoerak. Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuaren Eskuliburu informatiboa: Osakidetzako langileentzako arrisku orokorrak: prebentzio-zerbitzua, definizioak, osasun arloko arrisku orokorrak, arrisku ergonomikoak, arrisku psikosozialak. Prebentzioko karpeta gorria: lan-istripuak/intzidenteak, egin beharreko jarduerak: langileak eta hurbileko arduradunak, eraso bati nola aurre egin. Hori guztia Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuak argitaratu du.

.- Curso de cocina profesional. De Manuel Garcés. Editorial Paraninfo/Thomson Learning.

.- Manual de limpieza y mantenimiento de los hospitales. Editado por ITEL (Instituto Técnico Español de Limpiezas).

.- Manual básico de albañilería. De Manuel A. Villar Martínez. Editorial Mad S.l.

.- Manual de lavandería hospitalaria. Editado por ITEL (Instituto Técnico Español de Limpiezas).

.- El planchado. Editado por ITEL (Instituto Técnico Español de Limpiezas).

.- Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategia: proiektu estrategikoak.

Ataria: http://cronicidad.blog.euskadi.net

@@@RESOLUCIÓN 1768/2011, de 16 de noviembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se aprueban las bases específicas que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Operario de servicios del Grupo Profesional de Subalternos/Operarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.@@@

Mediante Resolución 1282/2011, de 15 de julio, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprueban las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Para la materialización de cada proceso selectivo es necesaria la publicación de las bases específicas que han de regir la convocatoria de destinos de cada categoría.

Por ello, de conformidad con lo establecido en la Ley 8/1997, de 26 de junio de Ordenación Sanitaria de Euskadi, la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, del Estatuto Marco del personal estatutario de los servicios de salud, la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, el Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, y demás disposiciones de vigente aplicación.

RESUELVO:

Primero.- Convocar las pruebas selectivas que son objeto de las presentes bases.

Segundo.- Aprobar las bases específicas, que figuran como Anexo I, que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Operario de servicios del Grupo Profesional de Subalternos/Operarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Tercero.- Aprobar la relación de destinos ofertados mediante el Anexo II que acompaña a la presente Resolución.

Cuarto.- Aprobar el baremo de méritos que figura como Anexo III de la presente Resolución.

Quinto.- Aprobar el temario correspondiente que figura como Anexo IV de la presente Resolución.

Sexto.- De acuerdo con lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero, y en la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, así como en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales de Osakidetza, contra esta Resolución podrá ser interpuesto recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de noviembre de 2011.

Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
JULIAN PEREZ GIL.

ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR GENERAL

ANEXO I

BASES ESPECÍFICAS QUE HAN DE REGIR EL PROCESO SELECTIVO PARA LA ADQUISICIÓN DEL VÍNCULO ESTATUTARIO FIJO EN LA CATEGORÍA DE OPERARIO DE SERVICIOS DEL GRUPO PROFESIONAL DE SUBALTERNOS/OPERARIOS CON DESTINO EN LAS ORGANIZACIONES DE SERVICIOS SANITARIOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.

1.- DESTINOS OBJETO DE CONVOCATORIA.

1.1.- Son objeto de esta convocatoria los destinos de la categoría de Operario de servicios del Grupo Profesional de Subalternos/Operarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, recogidos en el Anexo II. Estos destinos podrán ver modificado su número y características en función de la resolución de concurso de traslados que se convoque para el año 2011.

1.2.- De los destinos convocados, se reservan para su provisión por personal discapacitado el 5% que se fijaran en el momento de la determinación definitiva de los destinos ofertables previsto en las bases generales.

2.- REQUISITOS DE LOS ASPIRANTES:

Para participar en el proceso que aquí se regula, los aspirantes habrán de reunir al último día del plazo de presentación de solicitudes, salvo las excepciones que se prevean en las bases generales, debiendo mantener su cumplimiento hasta efectuar la toma de posesión del destino que, en su caso, se adjudique, además de los requisitos exigidos en las bases generales, los siguientes:

a) Estar en posesión o en condiciones de obtener la Certificación de años cursados (ESO o equivalente) expedida por el Ministerio de Educación y Ciencia, de conformidad con lo dispuesto en el Anexo I del Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza.

b) En todo caso, deberán cumplirse los requisitos del puesto al que se opte, según lo dispuesto en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como cualesquiera otros establecidos por la normativa vigente.

c) Haber satisfecho los siguientes derechos de inscripción dentro del plazo de presentación de solicitudes, conforme al Grupo de titulación al que pertenezcan los destinos ofertados:

Grupo E 10 euros.

3.- DESARROLLO DEL CONCURSO OPOSICIÓN.

3.1.- Fase de oposición.

Corresponderá al tribunal determinar el contenido de la prueba y su duración. La misma consistirá en la contestación por escrito en el plazo máximo que se fije, de un cuestionario de preguntas que versará sobre las materias del programa que se contiene en el Anexo IV.

Asimismo, mediante su inclusión en el citado Anexo, se facilitará la bibliografía para la preparación de la prueba.

3.2.- Tras la relación de aspirantes por orden de puntuación prevista en el apartado 14 de

las bases generales los aspirantes propuestos que figuren en el Anexo I deberán presentar fotocopia compulsada, además de la documentación que se relaciona en la base 14.2, de la siguiente:

- Fotocopia compulsada o testimonio notarial de la Certificación de años cursados (ESO o equivalente) expedida por el Ministerio de Educación y Ciencia, de conformidad con lo dispuesto en el Anexo I del Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza.

3.3.- Fase de concurso.

Se valorarán los méritos acreditados, según el baremo de méritos que se acompaña como Anexo III, conforme a los criterios establecidos en las bases generales.

# ANEXO II

## RELACIÓN DE DESTINOS CATEGORÍA: OPERARIO DE SERVICIOS

Conforme a lo previsto en la base 1 de las Bases Generales aprobadas por Resolución 1282/2011, de 15 de julio, del Director General de Osakidetza, se convocan 63 destinos.

El número de destinos convocado podrá sufrir variación como consecuencia de la resolución del concurso de traslados cuya convocatoria se efectuará en el año 2011.

De acuerdo con lo establecido en la base 2 la determinación de los destinos en las organizaciones de servicios sanitarios objeto de esta convocatoria, se hará junto con la publicación de la relación de aspirantes que han superado el proceso selectivo.

# ANEXO III

## BAREMO DE MÉRITOS DE LA CATEGORÍA DE OPERARIO DE SERVICIOS DEL GRUPO PROFESIONAL DE SUBALTERNOS/OPERARIOS

1) EXPERIENCIA PROFESIONAL: máximo 80 puntos.

Se computará el tiempo de servicios que los aspirantes tuvieran reconocido hasta el último día del plazo de presentación de solicitudes.

Del cómputo total, que se efectuará en base a los días naturales trabajados, se despreciarán los restos que resulten inferiores al mes. A estos efectos se entenderá por mes el conjunto de 30 días naturales.

1.- Por cada mes de servicios prestados como Operario de Servicios en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de la Seguridad Social o de los Servicios de Salud de Comunidades Autónomas, así como en cualquier Administración Pública, así como aquellos servicios prestados en los Servicios Sanitarios de la red pública de los demás estados miembros de la Unión Europea................0,30 puntos.

Al personal que acceda a través del turno de promoción interna se le computarán los servicios previos conforme a continuación se detalla:

a) Servicios prestados por personal en el grupo E: 0,22 puntos/mes.

b) Cuando sean prestados en el mismo puesto al que se opta: 0,30 puntos/mes.

Los servicios prestados en comisión de servicios o desempeño de funciones de superior categoría se computarán en el puesto efectivamente desempeñado.

Asimismo se computarán en el puesto de origen los servicios prestados en situación de servicios especiales.

2) EUSKERA.

- PL1: 9 puntos

ANEXO IV

TEMARIO: CATEGORÍA DE OPERARIO DE SERVICIOS.

1.- Organizaciones de servicios de Osakidetza/Servicio vasco de salud: Reconocimiento legal. Facultades. Relación de organizaciones de servicio sanitarias existentes hoy en día. Órganos de dirección, gestión y participación de las organizaciones sanitarias.

2.-Acuerdo de Regulación de Condiciones de Trabajo del Personal de Osakidetza/Servicio Vasco de Salud: Jornada de Trabajo. Descanso y vacaciones. Licencias y Permisos.

3.- Derechos y deberes de los pacientes y usuarios: Derechos generales. Derechos específicos del niño. Derechos específicos de la mujer. Obligaciones de los pacientes.

4.- Manual informativo del Servicio de Prevención de Osakidetza de prevención de incendios: naturaleza del fuego, como se provoca, agentes extintores más habituales, recomendaciones para la prevención de incendios, situación de emergencia. Manual informativo del servicio de Prevención de Osakidetza: Riesgos generales para los trabajadores de Osakidetza: Servicio de prevención, definiciones, riesgos generales del medio sanitario, riesgos ergonómicos, riesgos psicosociales. Carpeta Roja de Prevención: accidentes de trabajo/incidente, actuaciones a realizar: del trabajador y del responsable inmediato, actuaciones a realizar ante una agresión.

5.- La cocina. División del local: Departamentos comunes. Departamentos condicionados. Distintos tipos de fogones: de gas propano, gas ciudad, de carbón mineral, de gas oil, eléctrico. Otros generadores de calor: salamandra, freidoras, parrilla y plancha parrilla, prusiana, asador, marmitas y ollas a presión, mesa caliente, sartenes abatibles, baño maría.

6.- Generadores del frío: elementos empleados en la conservación alimentos perecederos. Balanza y mesas de trabajo. Marmita con tapa. Sartén escurridor. Medidas de capacidad. Pasapurés. Colador chino. Mortero. Rallador manual. Cacerola. Paellera. Cazuela de barro. Tipos de Cuchillos: de golpe y de medio golpe, cebollero, deshuesador, trinchante, puntilla, jamonero, machete, pelador.

7.- Higiene en los centros sanitarios. Importancia de la limpieza en un hospital. Limpieza y desinfección. Normas generales a tener en cuenta en la limpieza hospitalaria. Clasificación de las zonas de un hospital: zonas generales de bajo riesgo, zonas semicríticas o de riesgo medio, zonas críticas de alto riesgo.

8.- Utensilios, maquinaria y productos mínimos para realizar la limpieza de cada una de las zonas de un hospital. Detergentes. Lejías. Limpieza de habitaciones según situaciones: ocupada, desocupada, libre aislada. Limpieza de quirófanos. Limpieza de zonas no estériles.

9.- Procesamiento de la ropa. En área sucia. Técnicas de lavado (temperaturas, tiempos) e ideas básicas de eliminación de manchas. En área limpia (centrifugado, secado, calandrado). En ropero (almacenamiento y distribución). Calidad del agua. Secado de ropas y prendas de la institución hospitalaria.

10.- Distintos tipos de aglutinantes: la cal, el cemento, los morteros y el yeso. El hormigón armado. Conducciones: en red privada y en red urbana. Tipo de grietas: sencillas y en ángulo.

11.- Las secadoras, planchadoras o calandras.

12.- El reto de la cronicidad en Euskadi: Proyectos Estratégicos

BIBLIOGRAFÍA

.- Arts. 13 y 14 y Anexo II del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza/Servicio Vasco de Salud. B.O.P.V. nº 219, 14 de noviembre de 1997. Relación de organizaciones de servicios sanitarios. Distintos acuerdos por los que se modifican sus denominaciones, siendo el último el de 3 de octubre de 2011.

.- Titulo III y IV del Acuerdo de Regulación de Condiciones de Trabajo del Personal de Osakidetza/Servicio Vasco de Salud, B.O.P.V nº 250, de 31 de diciembre de 2007 y nº 113 de 16 de junio de 2008.

.– Arts. 1, 2, 3 y 4 del Decreto 175/1989 de 18 de julio, por el que se aprueba la Carta de Derechos y Obligaciones de los pacientes y usuarios del Servicio Vasco de Salud-Osakidetza

.- Manual informativo del Servicio de Prevención de Osakidetza de prevención de incendios: naturaleza del fuego, como se provoca, agentes extintores más habituales, recomendaciones para la prevención de incendios, situación de emergencia. Manual informativo del servicio de Prevención de Osakidetza: Riesgos generales para los trabajadores de Osakidetza: Servicio de prevención, definiciones, riesgos generales del medio sanitario, riesgos ergonómicos, riesgos psicosociales. Carpeta Roja de Prevención: accidentes de trabajo/incidente, actuaciones a realizar: del trabajador y del responsable inmediato, actuaciones a realizar ante una agresión. Todo ello está publicado por el Servicio de Prevención de Osakidetza.

.– Curso de cocina profesional. De Manuel Garcés. Editorial Paraninfo/Thomson Learning.

.- Manual de limpieza y mantenimiento de los hospitales. Editado por ITEL (Instituto Técnico Español de Limpiezas).

.- Manual básico de albañilería. De Manuel A. Villar Martínez. Editorial Mad S.l.

.- Manual de lavandería hospitalaria. Editado por ITEL (Instituto Técnico Español de Limpiezas).

.- El planchado. Editado por ITEL (Instituto Técnico Español de Limpiezas).

.- Estrategia para afrontar el reto de la cronicidad en Euskadi.

Portal: http://cronicidad.blog.euskadi.net